

OINHERRI ETA HIRITIK AT, HIRIGINTZA SOZIALAGOAK PROBATZEN

Maidar IANTZI GOIENETXE

Gure herrietako espazioek badute zeresana heziketan. Egokituak al daude? Nolako ekipamenduak behar ditugu? Elkarrekin diseinatzuz ez ote ditugu espazio atseginagoak sortuko? Bost herriren proiektu parte-hartzaileak ezagutu ditugu Oinherri eta Hiritik At-en herrien arteko foroan.


Oinherri eta Hiritik At 2021ean hasi ziren elkarlanean hirigintza hezitzailea bultzatzen. Herri antolamendua herri hezitzailearen ikuspegitik egiteko liburuxkak sortu zituzten, eta teoria praktikara eramanean zuten gero. Bost herrik bere egitasmo parte-hartzailea aurkeztu dute berriki foro batean. Errealitate eta proiektu hagitz ezberdinak deskubritzeko eta elkarrengandik ikasteko aukera ederra izan da.

Donostiako Tabakalerako txoko ireki batean bildu dira partaideak. Elkar ezagutzeko, izena eta herria errateaz gain, espazio publikoko zein elementurekin identifikatzen den azaldu du bakoitzak. Belarra, iturria, plaza, zuhaitza, bankua, lorategia, trenbide zaharra... halako ideiak eman dituzte Orio, Arrigorriaga, Itziar, Bera, Bergara, Zaldibia edota Asteasu-ko herritarrek, Oinherriko kideak denak.

SOPELA: AURREKONTU PARTE-HARTZAILEAK

Proiektua partekatu duen lehen herria Sopela izan da. Udal aurrekontuaren atal bat herritarrekin erabaki dute, beren iritzia zuzenean ezagutuz eta gauzatuz, Aztikerren laguntzarekin. «Gardentasun ari-keta bat izan da», laburbildu du Guruzne Carrasson alkateak. Erantsi du ordezkari politiko guztiek babestu dutela prozesua eta adostasun hori garrantzitsua izan dela aitzinera egiteko. Bederatzi urtetik gorako herritarrek proposatu eta bozkatu dute; are gehiago, botoen erdia gazteena izan da. Guztira 576 ideia jaso dituzte. Horiek sailkatu eta filtratu ondotik, 23 proposamenekin gelditu dira. Filtroak aurretik ezarriak zituzten, objektiboak izateko.

200.000 euroko aurrekontu partida bat gorde zuten, eta pozarren daude aurrera atera diren sei proiektuek zehatz-mehatz betetzen dutelako kopuru hori. Bozketa «oso arrakastatsua» izan da, alkateak baieztatu duenez, eta egitasmorik bozkatuenak gazteenak izan dira: eskolaren ondoan iturri bat jar-tzea, argiteria berritzea, gaztelekua eta parkea hobe-



Lezoko gaztetxoak, plazan bertan nolako espazioa irudikatzen duten marrazten, parte-hartze prozesuaren barnean.
LEZOKO UDALA

tzea eta bidegorria sortzea. Soilik zuhaitzen planean gailendu dira hel-duen botoak.

«Emaitzak aztertuta, argi geratu zaigu gazte zein nerabeek hirigintzan eragiteko duten nahia. Gazteak eta umeak entzun behar ditugu», nabarmendu du Carrassonek. Prozesu honetatik informazio ugari atera dute. Hobetzekoen artean aipatu du tailer irekiak egin dituzten arren, ez dituztela materiala eta komunikazioa gazteentzat moldatu. Funtzionatu dutenak ikastetxeetan egindako lanketa eta zuzeneko komunikazioa izan dira.

LEZO: PARKEEN ERALDAKETA PROZESUA

Iker Salaberria zinegotziak Lezon egin duten parkeen eraldaketa prozesuaren berri eman du. Datu bitxi bat: 6.000 biztanleko herria izateko, parke mordoa dute. 21 identifikatu zituzten eta proiektua garatzen ari ziren bitartean 22.a sortu zen. Zortzi hautatu zituzten eta ikastetxeetako haurrekin ibilbideak

egin zituzten. Tokian bertan marraztu zituzten irudikatzen zituzten guneak.

«Aniztasuna bilatu dugu, estilo eta toki diferenteak. Auzoei bizia emateko modu bat da parke mota bat bertan kokatzea, hala, gustuko dutenak bertara joango dira», azaldu du Salaberriak.

Kontatu du Lezon ez dela aspaldian futboleko aterik egon. Baina herriko espazio dezente erabiltzen dira futboleko jolasteko, bi jertserekin ateak osatuz. «Barne eztabaida sortu zitzaigun: futbolari toki gehiago eman behar diogu ala ez? Hiritik Atekoek eman zigiten erantzuna: eskaera orokorra da eta kirola ona da balioak sustatzeko. Agian, ez diogu eman behar leku zentral bat». Hala diseinatu dute espazio bat, alde batean kirol ezberdinak egiteko kantxa bat duena.

Bi urrats egingen dituzte orain: Euskal Herria parkea estaltzea eta Zubitxo erreka ingurua egokitzea. Erdigunean dago erreka hori eta umeek hankak freskatzeko erabiltzen dute. Uholdeak



sortu izan direnez, Ura Agentziarekin moldatzeko aukera dute. Hori aprobe-txatuko dute eremua gehiago naturali-zatzeko eta hobetzeko.

Ondorio gisa, zinegotziak erran du herri eskaeratik abiatu direla eta adi-tuen kanpo aholkularitza izan dutela lagun. Ikuspegi orokorretik zehatzera egin dute, eta parke artifizialak eta na-turalak, denak sartu dituzte proiektu-an. Hobetzekoen artean, gidaritza teknikoa izan dute faltan eta parte har-tze prozesuak konpasatu beharra su-matu dute, eragileak ez itotzeko.

Gehiago ere bai: «Parte hartze proze-su batean inportantea da dauden auke-rak ezagutzea eta ikuspegia zabaltzea. Guri gertatu zaigu tirolina eskatzea, ja-da badugun arren. Gainera, tirolinan ez dago interakziorik».

ELGOIBAR: SALLOBENTEKO BERDEGUNEA

Aitor Iriondo zinegotziak eta Naiara Martin Kukulaisi aisialdirako topagu-neko lehendakariak Elgoibarko Sallo-benteko berdegunearen proiektua eka-rrri dute. Martinek oroitu du Kukulaisik eta Atxutxiamaika aisi hezitzaileak egitasmo bat egin zutela Batxilergoko lehen mailako ikasleekin. Gazteek berdegune baten beharra adierazi zuten.

Izan ere, Lezokoarekin alderatuta, hagitz bertzelako egoera dute Deba Beheko herrian. «Herrigunea urbaniza-tua dugu eta zaila da berdegune natu-

Ezkerreko irudian, markinarrak kaleak denonak izateko herriko prozesuan lanean. Eskuinean, hainbat herritako kideak Donostiako Tabakaleran egindako foroan.
MARKINA-XEMEINGO UDALA - Gorka RUBIO | FOKU



ralak sortzea. Sallobentekoa bada gunebat, oinez ordu erdira egon arren, irisgarria dena eta erabiltzera ohituta gaudena», azaldu du Kukulaisikoak.

Iriondok oroitu du aurretik bazutela hezkuntza mahai bat, hezkuntza formal, ez-formala eta Udala barne hartzen zituena. Horrek lanak erraztu ditu. Atxutxiamaikak eta Kukulaisik eraman dute aurrera diseinuaren parte-hartze prozesua, ikasleekin eta jubilatuen elkartearekin harremanetan, besteak beste. Halaber, zenbait adituk egin dute lurraren eta egitasmoaren azterketa; GaraiOn Sorginguneak, Kuxta Ekoguneak eta Maia Permaculturrek, hain zuzen. Herriko eragile batzuekin egin zuten lehen topaketa tokian bertan, eta hurbil bizi diren bizilagunen ekarpenak jaso zituzten.

Zinegotziak zehaztu duenez, erabile-ra publikoa du berdegune honek, baina

jabetza pribatukoa da eta oinarrietara bueltatzeko moduko esku hartzea egiteko baldintza jarri zuen jabeak. Horrek baldintzatu ditu pixka bat.

Herri eskolak proiektu gisa garatu du berdegunea, curriculumean txertatuta. Ikastetxe bakoitzak bere proposamenak egin ditu eta ludotekan erabaki da, denen artean, diseinua.

«Herritartasuna lantzeko baliagarria izan da. Umeak ere herritarrak dira eta toki hori eman zaie. Hirigintza irisgarriagoa egitea ere lortu dugu: ‘Aukera duzu zure herrian zer behar duzun esateko. Gainera, kasu egingo dizugu’. Jolasteko eta harremantzeko toki natural bat diseinatu dugu», baloratu dute.

«Beste prozesu batzuetan parte hartzen ez duten familiak gerturatu dira. Parte hartzen duzunean, zeureago sentitzen duzu herria». Inaugurazioan, elkarrekin joan ziren espaziora eta haurrek lana nola egin zuten azaldu zieten helduei. «Ederra izan zen».

Atera duten ikasgaietako bat da garrantzia eman behar zaiola komunikazioari eta prozesua jaso behar dela.

MARKINA-XEMEIN: KALEAK DENONAK

Iratxe Lasa Markina-Xemeingo alkatea eta Ianire de Andres arkitektoa ez dira proiektu bakarra azaltzera etorri, baina izenburuak biltzen ditu denak: “Kaleak denONAK”, denontzat badira, onak direlako. 3.900 ibilgailu pasatzen dira

Markina-Xemein: «Saio berean batu ditugu helduak eta haurrak. Heldu batzuek ez dute hori ondo ikusi, baina umeen ikuspegiak esperantza piztu digu: ‘Gustura aritu gara parte hartzen eta berriro joan nahi dugu’, esan digute»

Elgoibar: «Umeak ere herritarrak dira eta toki hori eman zaie. Hirigintza irisgarriagoa egitea ere lortu dugu: ‘Aukera duzu zer behar duzun esateko. Gainera, kasu egingo dizugu’. Jolastu eta harremantzeko toki natural bat diseinatu dugu»

egunero herritik, horietatik %8,7 astunak. Baina saihebidia egiten ari da Al-
dundia eta horrek itxaropen argi bat
piztu die. Trafikoa berrantolatzeak he-
rri osoa eralda dezake eta, aukera hori
baliatuz, genero ikuspuntua, zaintza
eta hezkidetzaren zehar-lerro gisa hartuta,
ekin zioten lanari.

«Ez dago aparkatzeko arazorik. Hor-
taz, ohitura handia dago herri barruan
kotxez mugitzeko, distantzia laburrak
izan arren. Hori apurtu behar genuen,
autoz mugitzeko zailtasunak jarritz»,
agertu du alkateak. Erantsi duenez,
«Debekatuta jolastea» karteletan josia
dago herria, eta horrek ere lanketa bat
eskatzen du.

Bi prozesu paralelo uztartu dituzte:
Umeen eta Gaztetxoaren Kontseilua
martxan jartzea, eta espazioen diag-
nostikoa (kaleak denONAK) egiteko
prozesua. Emakume migratuen ahal-
duntze tailerrak ere txertatu dituzte
proiektuan, eta aberasgarria izan da.

Umeei dagokienez, «ez dakite» esa-
ten dute batzuek. «Baina ederki dakite,
eta enpatia handia dute», azpimarratu
du kontseiluan lanean aritu den De
Andresek. Gauza ukigarriez aritzeak la-
guntzen du partaidetza prozesuak
abiatzen, eta Zabala plazako garaieetan
arazoak zituztenez, berehalako esku
hartze bat egin dute.

«Bizikidetzaren arazo bat zegoen. Askok
ez dute nahi parkerik ondoan, ezta
umerik jolasean ere. Jolasa zaratarekin
lotzen dute batzuek. Parte-hartze bere-
zia egin dugu, saio berean batu ditugu
lako helduak eta haurrak. Heldu ba-
tzuek ez dute hori ondo ikusi eta
gazi-gozoa izan da guretzat. Baina
umeez ez diote halako garrantzirik
eman horri: 'Batzuek ez dute jarrera
egokia izan ez gurekin ez gainerakoe-
kin, baina gutxi batzuk izan dira. Gu
gustura aritu gara parte hartzen eta be-
rriro joan nahi dugu', esan digute. Begi-
rada horrek esperantza piztu digu»,
adierazi du Lasak.

«Haurrak herritarrek dira. Kontzien-
tzia hori piztu behar dugu ume eta hel-
duengan. Lan handia gelditzen da
oraindik». Alde horretatik, proiektu
pedagogikoa bultzatu dute.



Goian, Lezoko haurrak parke batera
bidean, lanerako materiala eskuetan.
Lerro hauen ondoan, Iker Salaberria
bertako zinegotzia egitasmoa azaltzen.
LEZOKO UDALA - Gorka RUBIO | FOKU

AZPEITIA: ALDE ZAHARREKO TOPAGUNEA

Ander Larrañaga zinegotziak eta Edur-
ne Korta Hezkuntza teknikariak eman
dute hirigintza sozialago bat bilatuz
Azpeitian egiten ari diren proiektuaren
berri. Alde Zaharra terrazaz josia dago,
kontsumo eredu bati lotuta. Bada
umeen gunek ere, baina bien artean
espazio huts bat dago, banku eta itzal
gutxiarekin, Done Jakue kaleko plaza-
txoan. Bertako Gernikako Arbola erori

zenez, herritarrekin batera topagune
bat sortzea erabaki zuten.

«Zein eragile genituen begiratu, eta
gu geu joan gara taldeetara. Haurrak,
gazteak, zaugarriak, aniztasun fun-
tzionala dutenak, emakume migratuak
izan ditugu lehentasun», kontatu dute.
Ahotsa eman nahi izan diete ohiko es-
parruetan entzuten ez diren pertsonen.
«Beraiek oso eskertuta agertu dira eta
guk haien lan egiteko moduak ezagutu

ditugu». Jasotakoarekin zirriborro bat
egin dute eta ohartu dira ez dela eral-
daketa handirik behar: aterpea, gunek
segurua, aparkaleku batzuk kentzea
eta plaza zabaltzea. Funtzionatu duena
lantaldea ongi definitzea eta sistemati-
zatzeko izan da; kronograma bat osatu
eta fideltasuna bermatzea; eta beharre-
tatik abiatzea, ez nahietatik. «Aldaketa
ikusgarriarik ez da izango; prozesua be-
ra da inportantea», laburbildu dute.